

## GASTUAK

	Pezeta
1.—Langilegoaren gastuak	43.200.000
2.—Ondasun arrunt eta zerbitzu gastuak	30.250.000
4.—Transferentzia arruntak	3.000.000
6.—Inbertsioak	10.098.465
<b>Gastuak guztira</b>	<b>86.548.465</b>

## GASTOS

	Pesetas
1.—Gastos de personal	43.200.000
2.—Gastos de bienes corrientes y servicios	30.250.000
4.—Transferencias corrientes	3.000.000
6.—Inversiones	10.098.465
<b>Total gastos</b>	<b>86.548.465</b>

OSASUN ETA GIZARTE ONGIZATE UDAL PATRONATOKO  
AURREKONTUA

## DIRU-SARRERAK

	Pezeta
3.—Tasak eta beste dirusarrera batzuk	77.811.218
4.—Transferentzia arruntak	94.839.899
5.—Ondare dirusarrerak	2.104.726
6.—Ondare salmenta	91.348.690
7.—Kapital transferentzia	4.000.000
<b>Dirusarrera guztira</b>	<b>270.104.533</b>

## PRESUPUESTO PATRONATO DE SALUD Y BIENESTAR SOCIAL

## INGRESOS

	Pesetas
3.—Tasas y otros ingresos	77.811.218
4.—Transferencias corrientes	94.839.899
5.—Ingresos patrimoniales	2.104.726
6.—Venta de patrimonio	91.348.690
7.—Transferencia de capital	4.000.000
<b>Total ingresos</b>	<b>270.104.533</b>

## GASTUAK

	Pezeta
1.—Langilegoaren gastuak	145.766.585
2.—Ondare arrunt eta zerbitzu erosketak	75.297.948
4.—Transferentzia arruntak	23.790.000
6.—Benetako inbertsioak	25.250.000
<b>Gastuak guztira</b>	<b>270.104.533</b>

## GASTOS

	Pesetas
1.—Gastos de personal	145.766.585
2.—Compra de bienes corrientes y servicios	75.297.948
4.—Transferencias corrientes	23.790.000
6.—Inversiones reales	25.250.000
<b>Total gastos</b>	<b>270.104.533</b>

## BERUALA ALKARTE ANONIMOA

## DIRU-SARRERAK

	Pezeta
4.—Transferentzia arruntak	31.000.000
5.—Ondare dirusarrerak	50.000
<b>Dirusarrerak guztira</b>	<b>31.050.000</b>

## SOCIEDAD ANÓNIMA BERUALA

## INGRESOS

	Pesetas
4.—Transferencias corrientes	31.000.000
5.—Ingresos patrimoniales	50.000
<b>Total ingresos</b>	<b>31.050.000</b>

## GASTUAK

	Pezeta
1.—Langilegoren gastuak	8.700.000
2.—Ondasun arrunt eta zerbitzu erosketak	1.350.000
6.—Inbertsioak	15.000.000
7.—Kapital transferentziak	6.000.000
<b>Gastuak guztira</b>	<b>31.050.000</b>

## GASTOS

	Pesetas
1.—Gastos de personal	8.700.000
2.—Compra de bienes corrientes y servicios	1.350.000
6.—Inversiones	15.000.000
7.—Transferencias de capital	6.000.000
<b>Total gastos</b>	<b>31.050.000</b>

Bermeon, 1998ko urtarrilaren 26an.—Alkatea

(II-343)

Bermeo, a 26 de enero de 1998.—El Alcalde

(II-343)

## Derioko Udala

## IRAGARKIA

Erreklamaziorik egon ez denez gero eta udalaren osoko bilkurak 1997ko urriaren 30ean egindako batzar arruntaren hasierako erabakiak horrela ezarri duenez gero, eraikinak lehenengoz okupatzeko lizentzia egilesten duen ordenantza behin betiko onartu da; horrela bada, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Lege araupeztailaren 70.2. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, ordenantza honen testu osoa argitaratu da.

Interesatuak, bada, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzibideetarako Salan administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen kontra; hori egiteko epea bi hilabetekoa izango da, jakinarazpenaren datatik kontatzen hasita, beti ere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 109. c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Derion, 1997ko urtarrilaren 27an.—Alkatea

## Ayuntamiento de Derio

## ANUNCIO

Elevada a definitiva la aprobación de la Ordenanza Reguladora del Otorgamiento de Licencias de Primera Ocupación de los edificios, por haberlo así dispuesto el acuerdo inicial, adoptado por el Pleno en sesión ordinaria celebrada el 30 de octubre de 1997, para el supuesto de ausencia de reclamaciones, de conformidad con el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación de su texto íntegro.

Contra dicho acuerdo que es definitivo en vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día de la notificación, conforme a lo dispuesto en el artículo 109, c) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

En Derio, a 27 de enero de 1997.—El Alcalde

**ORDENANTZA ARAUPETZAILEA, DERIOKO UDALEAN  
ERAIKINAK LEHENENGOZ ERABILTZEKO  
LIZENTZIA EGILESTEN DUENA**

**1. artikulua**

Ordenantza honen bitartez ezarriko dira eraikinen lehen okupazio edo erabilera egilesteko baldintzak eta prozedurak, beti ere bat etorri Lurzoruaren Araubide eta Hiri Antolamenduari buruzko 1976ko apirilaren 9ko Legearen 178. artikuluekin, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 21.2.d) artikuluekin eta udal plangintzari buruzko sorospidezko arauen 108. artikuluekin.

**2. artikulua**

1. Ordenantza honen ondoretarako, eraikintzat hartu behar diren egin berri diren eraikuntzak eta daborduko eginda dauden egiturak zabaldu eta berritzatzeko lanen ondorioz sortutakoak, beti ere hirigintza lizentzia baten itzalpean burutu direnean.

2. Obrak egitearen ondorioz erabilera zehatzik gabeko lokalak sortuz gero, horiek ezin izango dira moldatu (kanpoaldeko itxiera, zola, sabaien zarpeoa eta eraikuntzen instalazioak konektatzeko puntuak izan ezik), ez eta erabili ere, baldin eta abian jarri nahi den jarduera ezartzeko lizentziarik ez badago; lizentzia hori, bada, modu lokabeen tramitatu beharko da.

Aurrekoa baliozkoa izango da kotxeen zaindegiari dagokionez.

**3. artikulua**

Eraikinak lehenengoz okupatzeko edo erabiltzeko lizentziak helburutzat edukiko du honakoak egiaztatzea:

a) Eraikina eta aldi berean egindako urbanizazioa egin direla onartutako proiektu teknikoaren arabera eta bere egunean emandako lizentziaren baldintzen arabera.

b) Eraikinak betetzen dituela bizigaitasun eta higiearen inguruko beharrezko baldintzak.

c) Eraikinari erabilpen zehatza eman dakiokela.

d) Higiezinaren katastroko erreferentzia finkaren identifikazioari dagokiola.

e) Sustatzaileak zerbitzu publikoetako edo hirigintza ekipamenduetako elementuak berriro jartzeko betebeharra bete duela, horiek aurretik hondatu baditu.

**4. artikulua**

Eraikina lehenengoz erabiltzeko lizentzia lortu gura duten interesatuek alkate jaunari zuzendutako eskaera orria aurkeztu beharko dute, beti ere ikuskapenerako bisita egiteko eskatuz eta ondorengo agiriekin batera:

a) Obraren zuzendari ahalmen duen emandako eta elkargo ofizialak sinatutako ziurtagiria; bertan azaldu beharko da obra proiektu teknikoaren eta emandako lizentziaren baldintzen arabera egin dela; era berean, horretan azaldu beharko da higiezinak okupatua izateko beharrezko baldintzak betetzen dituela.

b) Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikina izanez gero, behin betiko kalifikazioa agiria.

c) Erregistratutako obra berriaren adierazpena; bertan ondokoak agertu beharko dute:

— Eraikinari lotuta geratuko den lur zatia, ezin izango dena, eraikina alde batera utzita, zatitu, ez eta besterenganatu ere.

— Herri jabari edo erabilerrako izan daitekeen luraren zatia.

— Notarioak protokolatutako plano erantsia; alta, plano horrek eduki beharko du lurzatiaren planoaren eskala eta oinarri topografiko berbera eta, era berean, bertan adierazi beharko da zein den hasierako azaleraren zati bakoitzari dagokion jabetza araubidea. Azalaren batuketak bat etorri beharko du proiektuaren hasierako planoan adierazitakoarekin.

d) Eraikinari ondasun higiezinaren gaineko zergaren matrikulan alta eman zaiola egiaztatzen duen agiria.

e) Beste herri-administrazio batzuen eskumenen arabera eska daitezkeen bestelako agiri edo baimenak (gas instalazioak, igogailuak eta abar).

**ORDENANZA REGULADORA DEL OTORGAMIENTO  
DE LICENCIAS DE PRIMERA UTILIZACION DE LOS  
EDIFICIOS EN EL MUNICIPIO DE DERIO**

**Artículo 1**

La presente Ordenanza tiene por objeto establecer los requisitos y el procedimiento para el otorgamiento de la licencia de primera utilización u ocupación de los edificios, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 178 de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana de 9 de abril de 1976, artículo 21.2.d) del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales y artículo 108 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.

**Artículo 2**

1. A efectos de esta Ordenanza, tienen la naturaleza de edificios las construcciones resultantes de obras de nueva planta, así como de las de ampliación o reforma de estructuras de las existentes, realizadas al amparo de una licencia urbanística.

2. Cuando la ejecución de las obras origine locales sin una definición concreta de los usos a que se van a destinar, no podrán habilitarse —salvo el cierre exterior, solado, raseo de techos y puntos para la conexión con las instalaciones del edificio— ni, por tanto, utilizarse sino una vez concedida la licencia para la instalación de la actividad de que se trate, que se tramitará de forma independiente.

La misma consideración tendrá la guardería de vehículos.

**Artículo 3**

La licencia de primera utilización u ocupación de los edificios tiene por finalidad:

a) Comprobar que el edificio construido y la urbanización ejecutada simultáneamente, en su caso, se han realizado con arreglo al Proyecto Técnico aprobado y a las condiciones de la licencia concedida en su día.

b) Comprobar que lo construido reúne las debidas condiciones de habitabilidad e higiene.

c) Comprobar que el edificio puede destinarse a un uso determinado.

d) Comprobar que la referencia catastral del inmueble se corresponde con la identidad de la finca.

e) Comprobar que el promotor ha cumplido con la obligación de reponer los elementos de servicios públicos y/o equipamiento urbano, caso de haberlos dañado.

**Artículo 4**

Los interesados en obtener licencia de primera utilización de un edificio, presentarán una instancia dirigida al Sr. Alcalde, solicitando que se practique la oportuna visita de inspección, acompañada de los siguientes documentos:

a) Certificado del facultativo Director de la obra, visado por su Colegio Oficial, en el que se haga constar que la obra fué terminada de acuerdo con el proyecto y con las condiciones de la licencia, en la que se deberá hacer constar que el inmueble reúne las condiciones necesarias para ser ocupado.

b) Cédula de Calificación Definitiva, si se trata de edificio de Viviendas de Protección Oficial.

c) Declaración de Obra Nueva registrada, en la que se haga constar:

— La parte del terreno que queda vinculada a la edificación y que no puede ser parcelada ni enajenada con independencia de aquella.

— La porción del terreno que pase, en su caso, al uso y dominio público.

— Plano anexo protocolarizado por Notario, con la misma escala y base topográfica que la del plano de parcela, con indicación del diverso régimen de propiedad que afecte a cada una de las partes de la superficie inicial. La suma de las diversas superficies deberá coincidir con la indicada en el plano inicial del proyecto.

d) Documento acreditativo de haber dado de alta lo construido en la matrícula del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

e) Cuantos certificados y autorizaciones le sean exigidos en función de las competencias concurrentes de otras administraciones públicas (instalaciones de gas, ascensores, etc.).

**5. artikulua**

Alkateari dagokio eraikinak lehenengoz erabiltzeko lizentzia emateko eskumena; horrek, bada, egintza berean onetsi beharko du 10. zerga ordenantzan, hirigintza lizentzia emateko tasari buruzkoa, araupetutako eskubideak likidatzea.

**6. artikulua**

1. Behin pertsona interesatuak eskatutako prozedura hasi eta gero, tramite guztiak bere arioz egingo dira; horretarako, udal zerbitzu teknikoetako txosten eta beharrezkotzat jotzen diren beste guztiak bildu beharko dira.

2. Udal zerbitzuetako txostenak azaldu beharko du ea obra burutu den onartutako proiektu eta emandako hirigintza lizentziaren arabera; ea berriri jarri diren zerbitzu publikoetako edo hirigintza ekipamenduetako elementuak, zeinek obraren ondorioz kalteak eduki ahal izan baitituzte; ea segurtasun, osasun eta apainketa publikoaren inguruko baldintzak betetzen dituen eta ea eraikina erabil daitekeen aurretik ezarritako erabilerarako.

3. Txostenak gehienez hamar eguneko epean egin beharko dira.

4. Gerta daiteke txosten honen ondorioz egiaztatzea onartutako proiektua aldarazia izan dela; horrelakoetan, bada, adierazi beharko da zein den egindako urratzea eta ea hori legeza daitekeen.

5. Horrelako kasuetan, beti ere zehapen espedienteari kalterik egin gabe, eraikinak beste baldintza guztiak betetzen baditu, lehen okupaziorako lizentzia emango da eta ur, elektrizitate zerbitzu eta antzekoen kontratazioa baimenduko da.

**7. artikulua**

1. Alkatetzak hiru hilabeteko epean ebatzi beharko du eskabidearen inguruan.

2. Ebazpenerako epea mugaegunera iritsi eta ebazpena eman ez bada, eskabidea oniritzizat hartuko da 1994ko abenduaren 22ko udalaren osoko bilkurak onetsitako prozeduren katalogoaren arabera, beti ere azaroaren 26ko 30/1992 Legearen xedapen gehigarrietarik hirugarrenarekin bat etorriz.

**8. artikulua**

1. Egindako eraikinaren titularrei okupazioa debekatzen zaie, harik eta lehen okupaziorako lizentzia lortu arte.

2. Higiezina osorik edo zatiz besterenganatuz gero, esku-ratzaileei sinesgarriro jakinarazi beharko zaie lehen erabilerako lizentzia falta dela, baldin eta hori lortu ez bada besterenganaketa izan baino lehenago.

**9. artikulua**

1. Energia elektrikoa ematen duten enpresak lortu beharko zaizkio haiei legez aplikatu dakizkiekeen arauak, beti ere obretan behin-behineko zenbakailuak jartzeari dagokionez eta etxebizitzetako hornidurarako aurretiaz lehen erabilerako lizentzia edukitzeko betebeharrari dagokionez.

2. Obretarako ur hornidura, behin hirigintza lizentzia lortu ondorengo, Derioko udalari dagokio; izan ere, zerbitzu publikoaren titularra, berak ezarrita daukan moduan, udala da, nahiz eta horrek behin-behineko izaera eduki eta iraupena mugatuta egon, lizentzia indarrean dagoen tartearan arabera.

3. Behin lizentzia iraungi eta gero, hornidura moztu beharko da. Modu berean jokatu beharko da, baldin eta sustatzaileari 4. artikuluan exijitutako agiriak aurkezteko agindeia egiten bazaio eta horrela egiten ez badu 15 eguneko epean eta bidezko karirik gabe.

4. Obrak egiteko emandako ur hornidura beste jarduera batzuetarako eta, bereziki, etxeko jardueretarako erabiltzea debekatu egongo da.

5. Udalak ez die etxeko erabileretarako urik emango lehen erabilerako lizentzia ez duten eraikinei.

**Artículo 5**

La competencia para otorgar la licencia de primera utilización de los edificios corresponde al Sr. Alcalde, que en el mismo acto aprobará la liquidación de los derechos regulados en la Ordenanza Fiscal número 10, de la tasa sobre la concesión de licencias urbanísticas.

**Artículo 6**

1. Iniciado el procedimiento a instancia de persona interesada, se impulsará de oficio en todos sus trámites, recabándose los informes de los Servicios Técnicos Municipales y los que se juzguen necesarios para resolver.

2. El informe de los Servicios Técnicos hará constar si la obra se ha ejecutado con arreglo al proyecto aprobado y licencia urbanística concedida; si han sido debidamente restaurados los elementos de servicio público y equipamiento urbano que hayan podido ser afectados como consecuencia de las obras; si reúne el edificio las condiciones de seguridad, salubridad y ornato público y si es apto para el uso a que se destina.

3. Los informes serán evacuados en el plazo máximo de diez días.

4. Si como consecuencia de dicho informe se comprobare la existencia de modificaciones sobre el proyecto aprobado, se deberá hacer constar la clase de infracción cometida y si es posible su legalización.

5. En ese caso, sin perjuicio de la tramitación del correspondiente expediente sancionador, si el edificio reúne el resto de los requisitos exigibles se concederá la licencia de primera ocupación y se autorizará la contratación de los servicios de agua, electricidad y análogos.

**Artículo 7**

1. La Alcaldía deberá resolver la solicitud en el plazo de tres meses.

2. Si venciere el plazo de la resolución y no hubiere sido dictada, se considerará estimada la solicitud de conformidad con el Catálogo de Procedimientos aprobado en sesión plenaria de 22 de diciembre de 1994 en relación con la Disposición Adicional Tercera de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

**Artículo 8**

1. Queda prohibido a los titulares del edificio construido su ocupación previa a la obtención de la licencia de primera utilización.

2. En las enajenaciones totales o parciales del inmueble construido se hará constar de forma fehaciente a los adquirentes la carencia de la licencia de primera utilización, si ésta no se hubiera obtenido al tiempo de la enajenación.

**Artículo 9**

1. Las empresas suministradoras de energía eléctrica se sujetarán a las normas legales que les sean de aplicación en orden a la instalación de contadores provisionales para obras y a la necesidad de la previa licencia de primera utilización para el suministro a viviendas.

2. El suministro de agua para obras, previa obtención de la licencia urbanística, corresponde al Ayuntamiento de Derio, titular del servicio público en la forma en que lo tiene establecido y tiene carácter provisional y duración limitada al tiempo de la vigencia de la licencia de obras.

3. Declarada la caducidad de la licencia, se procederá a cortar el suministro. Del mismo modo se actuará si requerido el promotor para que presente los documentos exigidos en el artículo 4, no lo hiciera, sin causa justificada, en el plazo de 15 días.

4. Queda prohibido utilizar el suministro de agua concedido para las obras en otras actividades diferentes y, especialmente, para uso doméstico.

5. El Ayuntamiento no suministrará agua para usos domésticos a edificios que no cuenten con la licencia de primera utilización.

**10. artikulua**

Hirigintza urratzetzat hartu beharko da eraikinak lehenengoz okupatzea, manuzko lizentzia eduki barik, beti ere Lurzoruari buruzko 1976ko apirilaren 9ko Legearen testu bateginaren 225. artikulua ezarritakoaren arabera, legezko testu bereko 178. artikuluari dagokionez, eta Hirigintza Arauak Betearazteko Araudiaren 51. artikuluaen arabera.

**11. artikulua**

1. Aurreko artikulua aipatzen duen urratzea zehatuko da egin-dako obraren balioaren %1etik %5era bitarteko isunaren bidez, baldin eta jarduketa legezatu ahal izango balitz.

Hori egitea ezinezkoa izanez gero, eraikinaren, solairuaren, lokalaren edo bulegoaren balioaren %5etik %10era bitarteko isunaren bidez zehatuko da.

2. Udalak beti eutsi beharko dio zaurtutako hirigintza ordena berrezartzera jotzen duten neurriak hartzeari, kautelazko neurri bezala okupazioaren egintza bertan behera uzteko xedatuz.

**12. artikulua**

Eraikinaren lehenengo okupazioa lizentziarik gabe eginez gero, erantzuleztat hartu beharko dira obren sustatzailea eta okupazioa egiten duena, baldin eta pertsona desberdinak badira; horrela bada, ezarritako isunak izaera lokabea izango du.

**13. artikulua**

Aplikatu beharreko hirigintzari buruzko legeriak ezarriko du zein den zehapen prozeduraren inguruan ebazteko organo eskuduna, beti ere isunaren zenbatekoaren arabera.

**14. artikulua**

Zehatzeko ahalgoa abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bidez egikarituko da.

**15. artikulua**

Ordenantza honetan ez ezarritakoari dagokionez, honakoak egongo dira indarrean: Lurzoruari eta Hiri Antolamenduari buruzko 1976ko apirilaren 9ko Legearen manua; Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Lege araupetzaila; Hirigintza Arauak Betearazteko Araudia eta Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera eta horrelaxe jarraituko du, harik eta aldarazi edo indargabetu arte.

(II-323)

**Elantxobeko Udala**

I R A G A R K I A

**1998KO AURREKONTU OROKORRA**

Elantxobeko Udalbatzak, 1998ko urtarrilaren 29an egindako Osoko Bilkuran, hasiera batean 1998 ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorra onartzea erabaki zuen, hala nola Aurrekontua gauzatzeko Udalaren Araua eta langileen zerrenda organikoa.

Aurrekontu bateratua, sarrerak eta gastuak orekatuta dituelarik, hirurogetabost milloi zortzirehun eta larogeitazortzi mila bedertzirehun eta larogetahamaika (65.888.991) pezetakoa da eta bere laburpena kapituluetan eginda hau da:

**Artículo 10**

Constituye infracción urbanística la primera ocupación de edificios sin la preceptiva licencia, conforme dispone el artículo 225 de la Ley del Suelo, Texto Refundido de 9 de abril de 1976, en relación con el artículo 178 del mismo texto legal, y 51 del Reglamento de Disciplina Urbanística.

**Artículo 11**

1. La infracción a que se refiere el artículo anterior será sancionada con multa del 1 al 5 por cien de la obra realizada, si la actuación fuera legalizable.

Cuando no lo fuera, será sancionada con multa del cinco al diez por cien del valor del edificio, planta, local o dependencia ocupada.

2. En ningún caso podrá el Ayuntamiento dejar de adoptar las medidas tendentes a restaurar el orden urbanístico vulnerado, disponiendo la cesación inmediata del acto de la ocupación como medida cautelar.

**Artículo 12**

En la primera ocupación de edificios sin licencia serán responsables el promotor de las obras y el que realice la ocupación, si fuesen personas distintas, teniendo la multa que se imponga carácter independiente.

**Artículo 13**

El órgano competente para la resolución del procedimiento sancionador será el que en cada caso determine la legislación urbanística aplicable, en función de la cuantía de la multa.

**Artículo 14**

La potestad sancionadora se ejercerá mediante el procedimiento establecido en el Real Decreto 1.398/1993, de 4 de agosto.

**Artículo 15**

En lo no previsto en la presente Ordenanza regirán los preceptos de la Ley del Suelo y Ordenación Urbana de 9 de abril de 1976; de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Reglamento de Disciplina Urbanística, de 23 de junio de 1978 y la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza entrará en vigor a los quince días de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y así permanecerá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

(II-323)

**Ayuntamiento de Elantxobe**

A N U N C I O

**PRESUPUESTO MUNICIPAL ORDINARIO 1998**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 29 de enero del presente año, adoptó el acuerdo de aprobación inicial del Presupuesto Municipal Ordinario correspondiente al ejercicio de 1998, así como la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria y la plantilla orgánica.

Dicho presupuesto, nivelado en su estado de ingresos y gastos, importa un total consolidado igual a sesenta y cinco millones ochocientos ochenta y ocho mil novecientos noventa y una (65.888.991) pesetas, cuyo resumen por capítulos es el siguiente: